

INÉS GARCÍA

SLIDES

Isiluneen arteko mugimendua

2023ko urtarrilak 17 - martxoak 26

INÉS GARCÍA (Bilbo, 1983). Zinemaren eta arte garaikidearen artean jarduten du, instalazioak, bideoak, film laburrak eta film luzeak eginez.

Besteak beste, erakusketa hauetan izan du lana ikusgai: *El Verb Harmònic*, La Panera (Lleida, 2022), BIAM22, Centre d'Art Lo Pati (Amposta, 2022), *Glissements d'échelle*, Obrador (Bilbo, 2022), Expanded Studio Project, PS2 (Belfast, 2019), *NEW SPAIN*, Galería Solar (Vila do Conde, 2018) eta Bartzelonako, Madrilgo eta Santanderko hainbat espaziotan.

Haren bideo eta filmak Santanderko Zinemaldien Jauregian eta Kataluniako Filmotekan proiektatu dituzte, baita DOCUMENTA MADRID, ZINEBI, La Inesperada, Punto de Vista, LOOP, KurzFilm Oberhausen eta Les Rencontres Internationales París / Berlín jaialdietan, New Yorkeko Bideoarte Latinoaren Jaialdian, Teherango Zinemaldian, Buenos Aireseko FIVAn eta beste hiri batzuetan ere, hala nola Lisboan, Atenasen, Montrealen eta Nottinghamen. Arte garaikideko zentroetan ere erakutsi dute, besteak beste, CA2M, Tabakalera, Rekalde Aretoa, Vigoko MARCO eta Murtziako kontserba-lantegian.

BilbaoArte Fundazioaren, Ereemuak elkartearen, Etxepare Institutuaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Fundación Santander Creativa-ren laguntzak eta bekak jaso ditu.

www.ines-garcia.com



Isiluneen arteko mugimendua

Aspaldi honetan sarri galdetzen diot neure buruari ez ote den dena hutsa, iluntasuna eta isiltasuna izango. Gure existentzia ez ote den agertoki bat, non fokuek mugimenduak eta keinuak argitzen dituzten, baina, begiradatik kanpo, dena iluntasuna den. Gorputza dardarka hasten zait. Eta funtzioak aurrera egiten badu bere inertziagatik, baina, argiak itsututa, aretoa hutsik dagoela ohartzen ez bada?

Agertokiaren gainean jartzen naiz, eta, fokuek ikuspegia itsutzen didatela, ozen galdetzen dut:

Benetan hutsik al dago areto hau?

Ez dut erantzunik jasotzen, baina handik pixka batera ohartzen naiz bibrazio sotil bat sumatu dudala. Aldaketa bat izan da. Orduan berriz goratzen dut ahotsa:

Hutsa baino zerbait gehiago al dago?

Alde banatara begiratzen dut, baita goitik behera ere, eta agertokian bakarrik nagoela berresten dut; orduan begiak itxi, gorputza lasaitu, burua lasaitzen dut. Ez dago mugimendurik, ez arnasarik, ez bibrazioarik. Ez dago interferentziarik. Iluntasuna besterik ez.

Orduan ohartzen naiz agertokiaren beste aldean nagoela, eta nire gorputza eraldatu egin da; orain mugarik gabeko masa handi bat da, eta, bitxia bada ere, nabaritzen dut nola ari den hedatzen eta uzkuratzen. Beste aldean, agertoki gainean, figurak zutik jarraitzen du. Alde honetan, ez dago galderarik, gertaerak baieztatuta daude.

Kanpoko ahots batek ateratzen nau egoera horretatik, eta, begiak irekitzean, inguratzen nauten formak zehazten doaz pixkanaka; nire eskuei begiratzen diet, eta biziki sentitzen dut haiengatik bizitza dabilela, bizitza asko. Betetasun eta presentzia sentimendu sakon batek hartzen nau.

Baina ezin diot utzi neure buruari galdetzeari:

Zer naiz ni?